

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

367/2020 Foru Agindua, azaroaren 17koa. Aldatzea Nekazaritza Saileko diputatuaren azaroaren 11ko 361/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez basurde uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezarri baitziren alarma egoera deklaratzearen ondorioz

Nekazaritza Saileko diputatuaren azaroaren 11ko 361/2020 Foru Aginduaren bidez, basurde uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezarri ziren, alarma egoera deklaratzearen ondorioz.

Behin onetsita, ikusi da ez zela adierazi noiz jarriko den agindua indarrean.

Ondorioz, aginduzko txostenak ikusita, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. eta 98. artikuluek gai horren inguruan ematen dizkidaten eginkizunak betez, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b).3 artikuluan ezarritakoarekin lotuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Nekazaritza Saileko diputatuaren azaroaren 11ko 361/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez basurde uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezarri baitziren alarma egoera deklaratzearen ondorioz, eta bosgarren apartatua gehitzea, zeina honela geratzen baita idatzita:

“Bosgarrena. ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 17a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE